



OT-015/11-PTP MUNGIA

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen batzarrak urriaren 11n Gasteizen egin zuen 4/2012 bilkuran besteak beste erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

#### **“I. Lurralde-antolamenduaren arloan:**

1. Irizpena ematea Mungiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialeko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Antolatzeko Ereduari buruz, hura hasieran onartu baino lehen, eta modu loteslean, lurraldea antolatzeko artezpideetara egokitzeari edo lurralde-plangintzarekin bateragarria izateari dagokionez, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 13.5 artikuluan adierazitakoaren arabera, honako hauek kontuan hartuta:

A. Urriaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Jarduera eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sortze Publikoari buruzko Lurralde Plan Sektorialeetik ondorioztatutako irizpideen arabera, Lurralde Plan Partzialaren proposameneren kapazitate industrialak ez da izango 100 Ha-tik gorakoa.

B. 1. Egokitzen jotzen da planeko jarduera ekonomikoetarako kokaleku berriei buruzko proposamena, kontuan hartzen baitituzte jadanik kalifikatuta dauden esparruekiko hurrentasun-irizpideak eta Bilbo/Mungia korridorearen hurbileko sarbide-erraztasuna, azterlanean argudiatua.

2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-ekimen berria 40 Ha inguruko azalera batera mugatu beharko da.

2. Eranskin hau hasieran ebaluatutako Lurralde Plan Partzialaren espedientean sartzeak berekin dakar Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Antolaketa Ereduaren atala berregokitzea, espedientea proposamen berriaren ondoriozko harrotze-parametro berrietara egokituz.

#### **II.- Landaren eta itsasertzaren garapeneren arloan:**

Landaren eta itsasertzaren garapenerari dagokionez, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak 2012ko irailaren 21ean emandako irizpena kontuan hartuko da.

#### **III.- Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen arloan:**

Biodibertsitateari eta Ingurumen Parte-hartzeari dagokionez, Biodibertsitate eta Ingurumen Parte-hartzerako Zuzendaritzak 2012ko irailaren 25ean emandako irizpena kontuan hartuko da.

#### **IV. Uraren arloan:**

Uraren Euskal Agentziak, 2012ko urriaren 3ko bere txostenean, aldeko irizpena ematen du, baina baldintza batekin: proposatutako (hasierako onarpen-fasea) plangintzaren hurrengo



garapen-faseetan kontuan hartzea, aukerak egiteko aztertu beharreko aldagaien artean, aurreko puntuan aipatutakoak; hau da, baliabide hidrikoen eskuragarritasuna eta inguruko saneamendua konpontzea.

#### V.- Kultura Ondarearen arloan:

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2012ko urriaren 8an emandako txostenean adierazitakoaren arabera, espedienteak honako zehaztapen lotesle hauek jaso behar ditu ezinbestean:

1.1. Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak hirigintza-mailako lotura batzuk ezartzen ditu legez babestutako ondasunentzat edo horretarako espedientea hasita dutenentzat, eta lotura horiek babestutako ondasunak mugatzeari eta haien babes-araubideari buruzko xedapenak jasotzera eta errespetatzera behartzen dute.

Eraikin bat Kultura Ondasun izendatzeak eragin handia du udalerrri bateko hirigintza-plangintzan, eta beraz, pentsatzen da beharrezkoa dela Lurralde Plan Partzialak argitzea hurrengo garapen-plangintzek izan beharreko edukia, kontuan hartuta 7/1990 Lege, uztailaren 3ko, Euskal Kultura Ondareari buruzkoan oinarrituta babestuta dauden kultura-ondasun higiezinak, eta zehazki:

- Kalifikatutako kultura-ondasunei dagokienez, kasuan kasuko kalifikazio-dekretuan zehaztutako mugaketa eta babes-araubidea kontuan hartu beharko ditu plangintzak bere zehaztapenetan.
- Inbentariatutako ondasunen kasuan (aipatu 7/1990 Legearen 20. artikulua), haien osotasuna bermatzeko beharra ezarri beharko da, suntsi, gal edo honda ez daitezela.

#### VI.- Ingurumenaren arloan:

Ingurumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako "Mungiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala" delakoaren Ingurumen Inpaktuaren Atarikoaren Osagarria den Ingurumen sailburuordearen urriaren 5eko txostena kontuan hartuko da.

**VII.** Espedienteari gehitzea honako hauen txostenak (ziurtagiri honi erantsita daude): Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzarena (I. eranskina); Biodibertsitate eta Ingurumen Parte-hartzerako Zuzendaritzarena (II. eranskina); Uraren Euskal Agentziarena (III. eranskina); Euskal Kultura Ondarerako Zuzendaritzarena (IV. txostena); eta Ingurumen Inpaktuaren Atarikoaren Osagarria den Ingurumen sailburuordearen urriaren 5eko txostena (V. eranskina).

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2012ko urriaren 15ean agiri hau egin eta sinatu dut.

IDAZKARIA



Sin.: Tomás Orallo Quiroga